

## -(K)i

Beatriz Fernández

UPV/EHU

### **Laburpena**

*Lan honek aditz inflexioko -(k)i morfema du aztergai. Morfema honi aplikatiboa iritzi izan zaio (Elordieta 2001, Rezac 2006) eta horixe bera aldarrikatzen dut nik lan honetan, aplikatiboa dela alegia. Egitura aplikatiboak ezagunak dira munduko hizkuntza askotan, hala nola, hizkuntza bantu eta uto-aztekarretan, eta ageriko morfema aplikatibo bati esker argumentu bat gaineratzen dute egiturara. Baldin eta hipotesi hau zuzena bada, orduan izatez euskaraz ez dugu aditz laguntzaille iragankor datibodunik —ez \*i (Lakarra 2008), ez edutsi (Euskaltzaindia 1987), ez eradun (Gómez eta Sainz 1995)—, ez bada argumentuak gaineratzeko estrategia nagusi bi, aplikatiboa batetik eta arazlea bestetik (Lafon 1944, Fernández 2012). Lanean zehar, -(k)i morfemaren beste agerraldi batzuk aztertuko ditut labur, hala nola, alokutiboetakoa.*

### **0. Hastapenak\***

Nire gramatikari ibilbidean, gai gutxik beste piztu du nigan arreta *-i* datibo kasuak. Datiboaz hausnartzeak halaberharrez inflexioaz ere gogoeta egitera eraman nau sarri, euskaraz, datiboarekin markatutako sintagma orok datibo komunztadura dakarrelako inflexiora, hego-mendebaldeko hizkeretan,

---

\* Lan honek buruz buruko eta e-posta bidezko eztabaida askotatik edan du. Aspaldi honetan, aditz inflexioari eta bereziki *-(k)i* morfemari buruzko elkarrikketa luzeetan, nire mintzakide kuttunak izan dira Ibon Sarasola, Beñat Oihartzabal, Patxi Goenaga, Richard S. Kayne eta Esther Torrego. Orobat, Pablo Albizu, Jon Ortiz de Urbina eta Milan Rezacekin batera urteetan zehar datiboaz ikasi dudana ere hemen dago zitur aski lerro artean idatzirik. Mintzakide kuttun hauen guttien artean bereziki kuttuna izan da Ibon Sarasola, eta bere omenez eta berarentzat idatzi dut lan hau. Bihoakie, bestalde, nire esker ona guztiei. Lanaren erantzukizun osoa, onerako zein txarrerako, nirea da bakarrik. Emaizta hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez. Gainerakoan, lan hau ondoko instituzio eta ikerketa proiektuek babestu dute: Eusko Jaurlaritzak (IT665-13); Espainiako Ekonomia eta Leihakortasun Ministerioak (FFI2011-26906) eta Frantziako Agence Nationale de la Recherche delakoak (RDKR 2012-16 eta TSABL (2008-2011: ANR 07 CORP 033).

bederen. Bestalde, edozein datibo komunztadura hizkiren aurretik, *-(k)i* morfema agertzen da inflexioan, Traskek (1997) *dative flag* deitura eman ziona, edo *datibo ikurra* euskaraz. Bada, *-(k)i* hori da lan honetan nire aztergai nagusia.

Lan honetan zehar bi hipotesi nagusi defendatuko ditut bata bestearekin zerikusi estua dutenak. Alde batetik, *-(k)i* hori morfema aplikatibo bat (Elordieta 2001; Rezac 2006) dela defendatuko dut. Munduko hizkuntzetan ezagunak dira egitura aplikatiboak, eta euren erakusgarri tipologikorik jatorrena bantu hizkuntzetan edo hizkuntza uto-aztekarretan jasotzen den arren, tipologikoki oso bestelakoak diren hizkuntzetan ere, ingelesez esate baterako, halako egiturak daudela pentsatu izan da (Pylkkänen 2003 / 2008). Aplikatiboari esker, oso modu xehean adieraziz, argumentu bat gaineratzen da egiturara. Euskarara begira adibidez, *-(k)i* aplikatiboari esker, datibo argumentu bat gaineratzen da. Konparatu, bestela, *berandu nator* egitura datibogabea, *berandu natorkizu* egitura datibodunarekin.

Beste alde batetik, *-(k)i* morfema aplikatibotzat hartzearen ondorioz, euskaraz aditz laguntzaile *iragankor datibodunik* ez dagoela aldarrikatuko dut (vs. Mounole liburu honetan), literaturan sarri askotan esan izan denaren kontra: ez *\*i* (Lakarra 2008), ez *\*edutsi* (Euskaltzaindia 1987), ez *\*eradun* (Gómez & Sainz 1995). Ustezko aditz laguntzaile hauen ordez, argumentuak gaineratzeko mekanismo orokor eta unibertsalak darabiltzagu euskaraz ere: *\*i* eta *\*edutsiren* ordez, *-(k)i* / *-(ts)i* buru aplikatiboa eta *\*eradunen* ordez, buru arazlea. Nire lehen hipotesiak, beraz, ondorioak dakartza aditz laguntzaileen txandakatzeari dagokionez, euskal aditz laguntzaile sistema zeharo murriztuz.

Azkenik, eta lehen hipotesiaren argitara, beste hipotesi bat plazaratuko dut Torrege & Fernández (2013) ildotik, hots, alokutiboen literaturan (Rebuschi 1984; Oihartzabal 1993) eztabaidagai izan den *-i* morfema bera ere aplikatibo bat dela.

Lan honek ondoko egitura izango du. 1. atalean, *-(k)i* deskribatuko dut eta morfema aplikatibo bat dela proposatuko dut; 2. atalean, aditz laguntzaile iragankor datibodunen hipotesiaren kontra mintzatuko naiz; aplikatiboaren hipotesia erakutsiko dut 3. atalean, erruandera bantu hizkuntzaren datuak baliatuz. 4. atalean, *-(k)i bikoitzak* eta *-i* lekuz-aldakorra deskribatuko ditut, eta 5. atalean, alokutiboetako *-ia*. Ondorio nagusiak bilduko ditu 6. eta azken atalak.

## 1. *-(K)i*

Munduko hizkuntzetan ohikoa denez, euskaraz ere aditz iragangaitz eta iragankorrak bereizten ditugu, eta aditz horiek forma jokatuak eta jokatugabeak dituzte. (1a) eta (1b) adibideetan, aditz jokatuak bi adibide ditugu. Lehenean *etorri* aditz iragangaitza dago, bere forma sintetiko ba-

tean; (1b) adibidean, berriz, *ekarri* aditz iragankorra, forma sintetikoan hau ere. Adizki sintetikoak biltzen ditu inflexioari dagozkion morfema guztiak.

- |     |    |        |             |                                  |
|-----|----|--------|-------------|----------------------------------|
| (1) | a. | (Ni)   | berandu     | n-a-tor                          |
|     |    | ni.ABS | berandu     | 1sgABS-DM-etorri                 |
|     | b. | (Ni-k) | liburua     | d-a-kar-t                        |
|     |    | ni-ERG | liburua.ABS | DM-DM-ekarri-1sgERG <sup>1</sup> |

Alabaina, hau ez da *etorri* eta *ekarri* aditzek erakusten duten konfigurazio bakarra. Biek ala biek datiboa gaineratu dezakete oinarrizko konfiguraziora, eta horren ondorioz, konfigurazio datibodunak sortu. Ondoko adibideetan, *etorri* aditzaren konfigurazio iragangaitz datiboduna (2a) ikus daiteke eta *ekarri* aditzaren konfigurazio iragankor datiboduna (2b) (Etxepare 2003; Fernández & Ortiz de Urbina 2010).

- |     |    |        |         |             |                              |
|-----|----|--------|---------|-------------|------------------------------|
| (2) | a. | (Ni)   | (zu-ri) | berandu     | n-a-tor-ki-zu                |
|     |    | ni.ABS | zu.DAT  | berandu     | 1sgABS-DM-etorri-apl-2DAT    |
|     | b. | (Ni-k) | (zu-ri) | liburua     | d-a-kar-ki-zu-t              |
|     |    | ni-ERG | zu-DAT  | liburua.ABS | DM-DM-ekarri-APL-2DAT-1sgERG |

Datiboa gaineratzeak, jakinaenez, berehalako ondorioak dakartza aditz inflexiora: a) datibo argumentuari dagokion komunztadura marka jasotzen da inflexioan;<sup>2</sup> eta b) datibo komunztadura marka baino lehen *-(k)i* morfema ageri da, hizkuntzariak *datibo ikurra* deitu izan dutena Trasken (1997) *dative flag* deitura euskarara ekarri.<sup>3</sup> *-(K)i* hori da, hain zuzen, gure eztabaidagai nagusia lan honetan, eta berehala ikusiko dugunez, morfema *aplikatibo* bat (Elordieta 2001; Rezac 2006) da.

*-(K)i* ez da (2) adibideetan ageri diren forma sintetikoetan bakarrik ageri: forma analitikoetan ere, *-(k)i* bera ageri da. Forma analitikoetan, ezaguna denez, aditz lexikoa dugu batetik aspektu markarekin batera, eta bestetik, aditz laguntzailea deitu ohi duguna, komunztadura markak, denbora eta modua

<sup>1</sup> Hauexek izango dira lanean zehar erabiliko ditudan laburdurak: ABS = absolutiboa; ALO = alokutiboa; APL = aplikatiboa; ARAZ = arazlea; ASP = aspektua; DAT = datiboa; DM = denbora/modua; ep = bokal epentetiko; ERG = ergatiboa; FAM = familiarra; FEM = femeninoa; IPRF = inperfektiboa; IRGN = iragana; M = modua; MAS = maskulinoa; ONR = onuraduna; P = preposizioa; pl = plurala; PRF = perfektiboa; sg = singularra; 1-2-3 = lehen, bigarren eta hirugarren pertsona.

<sup>2</sup> Aditz inflexioari edo aditz laguntzaileari dagozkion alderdi asko eta askoren inguruko eztabaida saihestu eta beste lan baterako utziko dut. Hurbilketa diakroniko berri baterako, ikus Ariztimuño (2014).

<sup>3</sup> Askotariko deiturak jaso ditu morfema honek, hala nola, *affixe pré-datif* (Rebuschi 1984: 617) eta *dative pre-suffix* (Hualde 2003: 201, 210). Deitura hauek guztiak ez dute estatus teorikorik gramatikan; aplikatibo deiturak, aldiz, bai.

biltzen dituen besteak beste. *Etorri* bezalako aditz iragangaitzekin, *izan* da aditz laguntzaile hori, eta \**edun* aditz historikoki berreraikia da, *ekarri* bezalako aditz iragankorrekin batera datorren aditz laguntzailea (Euskaltzaindia 1987b; Hualde 2003).<sup>4</sup> Ondoko adibideetan, forma analitikoak erakusten dituzten konfigurazio datibogabeak ditugu lehenik (3) eta datibodunak ondoren (4). *Izan* aditz laguntzailea jasotzen da (3a) eta (4a) adibideetan eta \**edun* aditz laguntzailea (3b) eta (4b) adibideetan.

- |     |    |        |             |             |                                      |
|-----|----|--------|-------------|-------------|--------------------------------------|
| (3) | a. | (Ni)   | berandu     | etorri      | n-a-iz                               |
|     |    | ni.ABS | berandu     | etorri.PRF  | 1sgABS-DM-izan                       |
|     | b. | (Ni-k) | liburua     | ekarri      | d-u-t                                |
|     |    | ni-ERG | liburua.ABS | ekarri.PRF  | DM-edun-1sgERG                       |
| (4) | a. | Jon    | (ni-ri)     | berandu     | etorri z-a-i-t                       |
|     |    | ni.ABS | ni-DAT      | berandu     | etorri.PRF DM-DM-(izan)-APL-1sgDAT   |
|     | b. | (Ni-k) | (zu-ri)     | liburua     | ekarri d-i-zu-t                      |
|     |    | ni-ERG | zu-DAT      | liburua.ABS | ekarri.PRF DM-(edun)-APL-2DAT-1sgERG |

Konfigurazio datibodunetan, ikusten denez, *izan* iragangaitz (4a) *izan* iragankor (4b), *-(k)i* morfema bera ageri da. *Etorri zait* bezalako forma iragangaitzetan, morfema horren agerpenak ez du printzipioz eztabaidarik eragin oinarrian dagoen aditz laguntzailearen inguruan, eta halako formetan aho batez onartu *izan* da *izan* bera dela aditz laguntzailea. Aldiz, *ekarri dizut* bezalako forma iragankor datibodunek zeresana eman dute, bai baitira uste dutenak *-i* morfema hori \**i* aditz laguntzailearen erroa dela (Lakarra 2008, adibidez), eta ez datibo ikurra. Bestelakoa da nire hipotesia: \**edun* aditz laguntzailea bera da hemen dagoena, nahiz eta forma datibogabeetan ez bezala, erroaren *-u-* morfemarik ikusi ezin dugun (uste berekoak dira Euskaltzaindia 1987 edo Hualde 2003). Ostean, adizki hauetan ageri den *-i* morfema *-(k)i* bera da, nire iritziz, eta morfema aplikatibo bat da, Elordietak (2001) bere doktore tesian iradoki zuen bezala. Egitura aplikatiboen bitartez argumentuak gaineratzen dira egiturara (adibidez, euskaraz ikusi dugun bezala, datiborik gabeko egitura batera datiboa gaineratzen dugu), eta tipologikoki euren erakusgarririk jatorrena bantu hizkuntzetan jasotzen den arren, munduko beste hizkuntza askotan ere aurki daiteke modu batean edo bestean. Gainerakoan, ikuspuntu teoriko hutsetik ere, aplikatiboaren aipamen sarria aurki daiteke literaturan, eta euskarari dagokionez, Albizu *izan* da (1998)ko lanaz gerotzik, ñabardurak ñabardura, hipotesi hau sendoen defendatu duen hizkuntzalaria. *-(K)i* morfema aplikatiboa delako hipotesia garatzen hasi aurretik baina, ikus ditzagun aditz laguntzailearen hautaketaren inguruko zenbait alderdi, eztabaida argitzen lagunduko dutelakoan.

<sup>4</sup> Izatez, aditz laguntzailea diogunean, *izan* eta \**edun* bezalakoak *izan* beharko genituzke go-goan, eta ez adizkia bera.

## 2. Aditz laguntzaile iragankor datibodunen kontra: ez \*i, ez \*edutsi, ez \*eradun

-(K)i morfemari buruzko eztabaidarekin abiatu dugu lana eta itxuraz oso bestelako eremura begira jarri gaitu delako morfemak, hots, aditz laguntzailearen txandakatzera begira. Izan ere, baldin eta -(k)i morfema aplikatibo bat bada, orduan *ekarri dizut* adizkian eta bere gisakoetan, ez dugu \**edun* aditz laguntzailea besterik, eta ez \*i (Lakarra 2008)<sup>5</sup> edo bestelako aditz laguntzaileerik (vs. Mounole, liburu honetan). Bestelakoa diot, zeren hizkeretako datuetara begira (5b), ez da \*i mendebaldeko hizkeretarako proposatu den aditz laguntzailea, \**edutsi* baino (Euskaltzaindia 1987; Trask 1995). Are gehiago, \*i eta \**edutsi* ustezko aditz laguntzaileen kideko ipartarra \**eradun* dela proposatu da inoiz (Gómez & Sainz 1995: 240, 244-5):

- |     |    |            |                                   |
|-----|----|------------|-----------------------------------|
| (5) | a. | ekarri     | d-i-zu-t                          |
|     |    | ekarri.PRF | DM-(edun)-APL-2DAT-1sGERG         |
|     | b. | ekarri     | d-e-u-ts(i)-zu-t                  |
|     |    | ekarri.PRF | DM-DM-edun-APL-2DAT-1sGERG        |
|     | c. | ekarri     | d-a-(ra)-u-tzu-t                  |
|     |    | ekarri.PRF | DM-DM-(ARAZ)-edun-APL-2DAT-1sGERG |

Hortaz, abiatu eta batera, *izan* eta \**edun* aditz laguntzaileez gain, \*i, *edutsi* eta \**eradun* ustezko aditz laguntzaileekin topo egiten dugu. Aditz laguntzaileak *benetan* zenbat diren aspalditik datorkigun eztabaida da, eta horren harira ere, Ibon Sarasolak (c. 1988) hitz gogoangarriak utzi dizkigu, ohikoa duen estiloan.

Al menos desde mediados del siglo pasado existe una polémica que siempre me ha sorprendido por su bizantinismo, sobre cuántos verbos auxiliares vascos hay ‘en realidad’. Los gramáticos vascos parecen olvidar que la noción de ‘realidad’ igual que la de ‘verdad’, si en algún campo tienen entidad, ese campo no es desde luego el científico, donde lo que hay que conseguir son modelos falsables que den cuenta de los fenómenos de la forma más adecuada y económica posible.

Nire intuizioa da oso litekeena dela sintaktikoki aditz laguntzaile bat bakarra izatea euskaraz, hots, *izan*, eta diferentziak diferentzia, beharbada, bat egingo nuke, bizantziar eztabaidan aditz laguntzaile bakarraren alde egin duten hizkuntzalariekin, arrazoibidea oso bestelakoa izan arren —jo Gómezen (2006) lanera berrikusketa historiko gozagarri baterako—. Nolanahi ere, oraingoan bederen, ez dut eztabaidatuko \**edun* azken batean *izan* ez ote den.

<sup>5</sup> Beñat Oihartzabalek buruz buru adierazi didanez, Lakarraren uste berekoa da bera. Nolanahi ere den, bere ustez, \*i aditz laguntzailea balitz ere, erro honetako adizkiek ere aplikatiboa erakutsiko lukete.

Oraingoan gainerako ustezko aditz laguntzaileetatik batzuei bakarrik begiratu diet, hots, *\*i*, *\*edutsi* eta *\*eradun* historikoki berreraikiak diren aditz laguntzaileei. Lehen biek, zerikusia dute *-(k)i / -(ts)i* morfema aplikatiboarekin; *\*eradun-ek*, berriz *-ra* arazlearekin (Lafon 1944; Fernández 2012), espazio mugak tarteko, lan honetako eztabaidatik kanpo utziko dudana.

Askotariko argudioak eman daitezke, *\*i* erro beregainik ez dagoela aldarrikatzeko. Lehenik eta behin, estrategia bat bera antzematen da konfigurazio datibodun guztietan (iragangaitz zein iragankorretan): *-(k)i* gaineratzen da. *-(K)*iren estrategia, gainera, ez da bakarrik adizki analitikoetan aurkitzen, analitiko zein sintetikoetan baino, hau da, aplikatiboaren hipotesiak askotarikoak diren datuak besarkatu eta azaltzen ditu. Aldiz, *\*i* erro beregainaren hipotesiak, izatekotan, forma analitiko iragankor datibodunak azal litzake, baina *-(k)i* morfemaren gainerako agerpenak bestela azaldu beharko litzuke. Nola?

Bigarrenik, datu hutsetara begira, baldin eta *-(k)i* hau *\*i* aditz erroari badagokio, orduan azaldu beharko da zer den *-(k)i*, iragankor datibodunak ez diren gainerako konfigurazioetan (*etorri zait* bezalakoetan adibidez). Orobat, iragankor datibodunetara begira ere, gogora datorkigun galdera da ea zer ote den ahaleraz, subjunktiboaz eta aginteraz, mendebaldeko euskaraz ez, gainerako hizkeretan jasotzen den *eza-* osagaiaren ondotik ageri den *-i* hori,<sup>6</sup> esate baterako, ahalerazko ondoko adibidean:

- (6) ekar            d-i-eza-i-o-ke-t  
       ekarri        DM-APL-(ezan)-APL-3DAT-M-1sGERG

Halako formetarako, aspalditik datorkigun hipotesia da nagusi gaur egun ere, hots, *\*ezan* aditz laguntzailea dugula (Euskaltzaindia 1987 eta Hualde 2003). Jo dezagun halaxe dela.<sup>7</sup> Bada, orduan, zer ote da pritzipioz *-o* datibo komuntadura hizkia baino lehenago ageri den *-i* hizki hori? Aditz erroa al da hemen ere? *\*Ezan* zein *\*i* aditz erroak izango genituzke halakoetan bata bestearen atzetik? Ez dirudi: leku berean, itxura berarekin, morfema bera delakoan nago ni.<sup>8</sup>

Hirugarrenik, gatozen hizkeretako formetara. *\*Edun* edozer delarik ere, *de-u-tsut* bezalakoetan, *-u-* morfema bera daukagu, *\*edun* aditz laguntzailea-

<sup>6</sup> Edo *eza* bera baino lehenago datorrena.

<sup>7</sup> Jo dezagun, diot, zeren *\*ezan* hori itxura guztiaren arabera, *izan* bera da, Bonapartek (1869) aspaldi aldarrikatu zuen bezala. Borja Ariztimuñok buruz buru adierazi didanez, historikoki ere *izan* eta *\*ezan* erro berekoak dira, bere ustez. Sinkronikoki ere erro berekoak izateak ez du esan nahi, jakina, bata bestea bezala eratorriko lirakeenik sintaxian.

<sup>8</sup> Adibideko *ekarri d-i-eza-i-oket* adizkiak, geroago erakutsiko dudanez, badu morfologikoki bederen orain arte aipatu ez dudana beste ezaugarri bat, hots, *-(k)i* ez da behin bakarrik ageri, birritan baino: batetik, erroaren eskumatara, datibo komuntadura markaren ondo-ondoan; bestetik, erroaren ezkerretara. Hau bezalako *-(k)i bikoitzez* 4. atalean mintzatuko naiz.

ren errotzat hartu izan dena. Hortaz, \**edutsi* ezer bada, behintzat, \**edun* + *tsi* izango da, eta -(*ts*)*i* hori, itxura guztiaren arabera, -(*k*)*i* bera da, hots, aplikatiboa. Mendebaldeko adizkietan, beraz, aplikatiboa alde batera utzita, \**edun* baldin badago forma iragankor datibodunen oinarrian, zergatik egongo da kideko forma erdialdekoetan \**edun* ez den beste ezer? Are gehiago, ekialdeko hizkeretan, zeinetan -(*k*)*i* aplikatiboa ez ezik, -*ra* arazlea ere jasotzen den, -*ra* hori ere \**eduni* gaineratu zaiola dirudi, *da*-(*ra*)-*u*-*tzut* bezalako adizkietan -*u*-morfemari begira ikus daitekeen bezala. Hortaz, hizkeren arteko diferentzia ez dagokio aditz laguntzaile baten edo bestearen hautaketari, argumentuak gaineratzeko erabiltzen den estrategia nagusiari baino, hau da, mendebaldean eta erdialdean, aplikatiboa batetik eta bestetik, ekialdean, arazlea (aplikatiboarekin batera).

Azkenik, munduko hizkuntzetara begiratzen dugunean, aditz laguntzailearen txandakatzeaz hitz egiten denean, *be/have*, *ser/haber*, *être/avoir*, *essere/avere* bezalakoek hitz egiten da. Hizkuntza batzuetan, HAVE dei genezakeena baino ez daukate aditz laguntzaile gisa (gaztelania, portugesa eta katalanaren hizkera batzuetan, adibidez); beste hizkuntza batzuetan BE baino ez (galesak, eskoziar gaelikoak edo tamilerak beste batzuen artean); azkenik badira BE/HAVE bi aditz laguntzaileak dituzten hizkuntzak (frantsesak, italiar, okzitaniar, alemanak, nederlandar, Erdi Aroko galizierak eta Erdi Aroko portugesak).<sup>9</sup> Harrigarria litzateke, nire iritziz, joera tipologiko sendo honen kontra, euskara salbuespena izatea honi dagokionez, eta ez bat (*izan*) ez bi (*izan* eta \**edun*), ez bada *bost* aditz laguntzaile (*izan*, \**edun*, \**i*, \**edutsi* eta \**eradun*) izatea.<sup>10</sup>

### 3. -(*k*)*i*-(*ts*)*i* buru aplikatiboaren alde

Aditz laguntzaile iragankor datibodunik ez dagoela aldarrikatu dut azken atalean. Hipotesi hori, gorago esan dudanez, beste baten ondorioa da, hots, -(*k*)*i*-(*ts*)*i* buru aplikatiboak direlako hipotesiaren ondorioa. Dagoeneko esan dugun bezala, -(*k*)*i* morfema aplikatibo bat dela dio Elordietak (2001) esplizituki bere doktore tesian. Dena dela, ez du aplikatiboaren hipotesia garatzen, eta beste egile batzuen lanetara jo beharra dago hipotesi hori bere zentzurik eta jatorrenean aurkitzeko. Ormazabal & Romero (1998) eta Albizu (1998) izan dira hipotesi honi hertsikien lotu zaizkionak, Bakerren (1988) teoria orpo orpo jarraituz (aipatutako lan horietan zein geroagokoetan).

Aplikatiboen testigantzarik benetakoena Afrikan aurki daiteke, hizkuntza bantuetan batez ere; baita hizkuntza austronesiarretan ere, eta Ipar Ame-

<sup>9</sup> Gaiari buruzko hurbilketa orokor baterako, ikus McFadden (2007).

<sup>10</sup> Edo zazpi, zerrendara \**edin* eta \**ezan* gaineratzen baditugu (eta ez dut zenbatzen jarraituko).

rika eta Ertamerikako salishiar, maiar eta uto-aztekar hizkuntzetan. Ruan-dako erruandera bantu hizkuntzaren adibide bat ikus daiteke ondoren (Dryer 1983: 129):

- (7) Yohaâni    y-oher-**er**-eje                      Mariya    íbáruwa  
 Jon            hura.MAS-bidali-ONR-ASP    Miren    gutuna  
 ‘*Jonek Mireni gutun bat bidali zion.*’

Adibide honetan, *-er* morfema ageri da aditz jokatuan. Morfema hori da, hain zuzen, aplikatiboa. Izatez, *onuraduna* deritza Dryerek, eta ez da harritzekoa, egitura horretara aplikatiboari esker gaineratzen den argumentua (*Mariya*) onuraduna delako, hots, gutunaren onura jasotzen duena. Erruandera-raz, bestelako aplikatiboak ere badaude, eta ez nahitaez onuradunarekin zerikusia dutenak. Ondoko adibideetakoak, esate baterako, lokatiboak dira, euskarazko *-n* postposizioaren parekoak.

- (8) a. Umwáana    y-a-taa-ye                      igitabo    **mu**    máazi  
           umea            hura.MAS-IRGN-bota-ASP    liburua    P        ura  
           ‘*Umeak liburua bota du uretara.*’  
 b. Umwáana    y-a-taa-yé-**mo**                      amáazi    igitabo  
           umea            hura.MAS-IRGN-bota-ASP-P    ura        liburua  
           ‘*Umeak liburua bota du uretara.*’

Ikusten denez, bi perpausek esanahi bera dute euskaraz, baina egitura-raz arras diferenteak dira. Bietan, lokatiboa adierazten da (zehazki, *uretan*), baina lehen adibidean (8a), preposizio bat darama aurretik, *mu* preposizioa, hain zuzen, eta osagarriaren eskumatara ageri da, hots, adjuntuak edo nahiago bada, osagai periferikoak ageri diren lekuan. Aldiz, bigarren adibidean (8b), lokatiboak ez darama preposiziorik, eta aditzaren eskumatara ageri da, osagarria espero genezakeen lekuan. Izan ere (8b) adibidean, periferikoa den osagai bat (*uretan*) osagarri peto bat bihurtu da, eta hala argumentu bat gaineratu da egiturara. Bigarren egitura hau da, hain zuzen, egitura aplikatiboa.

Aplikatiboa, beraz, argumentuak egiturara gaineratzeko mekanismo bat da, aditz jokatu bati begira, morfema bati esker ezagutu daitekeena, erruandera-raz, onuradunerako *-er* morfemari esker adibidez, eta euskaraz, *-(k)i* eta *-(ts)i* morfemei esker. Dena dela, aplikatiboa modu batean baino gehiagotan interpretatu izan da. Adibidez, Bakerren ustez (1988) preposizio baten inkorporazioa da delako aplikatibo hori, nahikoa modu argian ikus daitekeena (8)ko adibideetan: egitura batean preposizioa dago eta bestean preposizio hori aditzera inkorporatu dela dirudi.<sup>11</sup> Bakerren hipotesia horixe da, hain zuzen, egi-

<sup>11</sup> Horregatik erabili dugu P(preposizio) laburdura, APL(ikatiboa)ren ordez.



tura aplikatiboak, bere ustez, preposizio bat aditzera inkorporatzearen ondorioa dira.

-(K)i morfemara itzuliz, aplikatibotzat hartu baino askozaz ere lehenago, diferentziak diferentzia, Bakerren hipotesira asko hurbiltzen den ustea erakutsi zuen Traskek (1981: 289), ondoko hitzetan jasotzen den bezala:

What was the original source of *-ts-* and *-k-*? We cannot be sure, but I would like to suggest that they were prepositions —after all, they always precede pronominal elements, and they govern a particular case, the dative. The incorporation of prepositions into verb forms is well attested in other languages, including Amharic and the Munda languages of north India (all of these languages, incidentally, are exclusively postpositional today, like Basque). Prepositions are not directly attested at any period in Basque, but perhaps here we have a tantalizing residue of a time when the structure of Basque sentences was very different.

Ikusten denez, preposizioaren inkorporazioaz ziharduen Traskek ere, eta gainera, -(k)i eta -(ts)i morfemetako lehen osagaiak, hots, -k- eta -ts-, preposiziotzat hartu zituen. Benetan, sen handia behar da hirurogeita hamarreko hamarkadan uste horretakoa izateko. Trasken iritziak galdera benetan handiak sortzen ditu euskararen historiari buruz, hitz hurrenkeraren ingurukoak batzuk, baina ez dira txikiagoak hizkuntzaren egiturari ikuspuntu sinkronikotik begiratzen diogunoi sortzen zaizkigunak. Aplikatiboa dugula ez dirudi zalantzatan jar daitekeenik eta ezta -(k)i eta -(ts)i direnik argumentuak gaineratzearen erantzuleak ere. Kontuan izan, gainera, aplikatiboez hitz egiten denean, batez ere literatura tipologikoan esaten dela aditzean morfema berezi bat dagoela. Erruanderaz hala dela ikusi dugu eta euskaraz ere bai.

Besterik da aplikatibo hori izatez preposizio baten inkorporazioaren ondorioa ote den, erruanderaren lokatiboarekin itxuraz den bezala. Jarri gaitzen euskarara begira berriro: datibo marka euskaraz -i da; morfema aplikatiboa ere -i, horixe baitiogu -(k) eta -(ts) parentesi artean irudikatzen ditugunean. Ezin daiteke kasualitatea izan, kasualitatea izan ezin daitekeen bezala -ra arazlea, ekialdeko *darautzut* eta kidekoetan, -ra adlatiboaren postposizioa bezalakoxea izatea. Jakina, aplikatiboa bada preposizioa inkorporatzearen ondorio, orduan, bi aukera teoriko izango genituzke: a) egitura postposiziodun bat (-i izango litzateke postposizio hori) eta -(k)i eta -(ts)irik gabea —*Joni liburua eman dut* izan liteke egitura horren adibide bat, ipar-ekialdean horren ezezaguna ez dena datibo komunztadurarik gabeko agerraldietan—; eta b) egitura aplikatiboa, hots -(k)i eta -(ts)iduna, baina postposiziorik gabea (-igabea) —*Jon liburua eman diot* litzateke bigarren aukera hori, inongo hizkeretan jasotzen ez dena eta ezgramatikala dena euskaraz—. Lehen aukerari dagokionez, ipar-ekialdeko *Joni liburua eman dut* bezalakoak egitura postposiziodunak direla defendatu dute Etxeparek eta Oihartzabalek (2009). Bigarren aukera dagoeneko esan dudana bezala ez da gramati-

kala. Euskaraz orokorturik dagoen egiturak *-i* du batetik eta bestetik, *-(k)i* eta *-(ts)i*, hots, *Joni liburua eman diot*. Horixe da morfologikoki ikusten duguna. Horrek ez du esan nahi egitura hori printzipioz aplikatiboa ez denik. Eztabaidak ikusten denez, datiboaren izaera arakatzera narama berriro, eta oraingoan, behintzat, ez da hala izango. Ziur aski, datiboak askotarikoak direla kontuan hartuz, oso litekeena da datiboetako batzuk aplikatibo huts bati esker sortzea eta beste batzuk, preposizio baten inkorporazioari esker. Rezacek (2008, 2009), adibidez, mugimenduzko aditzetako datiboak jatorrian preposizio/postposizio sintagmak direla proposatu du. Trasken aspaldiko intuizio hura, ñabardurak ñabardura, zuzena izan liteke beharbada.

#### 4. *-(k)i* bikoitzak eta lekuz aldakorra den *-i*

Bestalde, *-(k)i* morfemari dagokionez, badago deskribatu eta azaldu beharreko beste gertakari bat: adizki batzuetan, datibo komunztadura hizkia-  
ren ezkerretara eta ondo-ondoan ageri den *-(k)i* morfemaz gain, beste *-i* morfema bat jasotzen da erroa baino lehen, adizkiaren bigarren gunean.<sup>12</sup> *-(K)i bikoitzak* deituko diet halakoei. Hona goian eman dudana adibide bera berriro:

- (9) ekar            d-i-eza-i-o-ke-t  
ekarri            DM-APL-ezan-APL-3DAT-M-1sERG

Beharbada, *-(k)i* bikoitzak ez dira gertakari morfologiko hutsak baino, hots, morfema bikoizturik agertzeak ez du esan nahi halabeharrez syntaxian bi argumentu gaineratzen direnik egiturara, ez bada bat bakarra —gure azken adibidean, singularreko hirugarren pertsona—. Hala ere, morfologia hutsera begira, *-(k)i* bikoitzek morfema aplikatiboaren kokalekuaz ere zerbait erakusten dutelakoan nago, zeren *-i bikia* ageri den gune berean jasotzen baita beste adizki batzuetan dagoen morfema aplikatibo bakarra, esate baterako ondoko adibidean:

- (10) ekar            d-i-eza-zu-ke-t  
ekarri            DM-APL-ezan-2DAT-M-1sERG

Intuizio hau bera, hots, *-(k)i* hori leku batean edo bestean ager daitekeela, lehenago ere aipatu izan da hizkuntzalaritzan, Oregiren (1973: 268) lan iradokitzailean, esate baterako. Oregik dakartzan adibideetatik batzuk, *natorkik/*

<sup>12</sup> Adizkiaren bigarren gunean *-i* hau ez ezik, bestelakoak diren bokalak ere jasotzen dira, *-a*, *-e* eta baita aplikatiboarekin lotu ezin daitekeen beste *-i* bat ere, adibidez, *n-a-kar*; *n-e-karren* edo *n-i-ndekarren* adizkietan. Adibideen azpiko glosetan, besterik gabe, denbora-modu morfematizat hartu ditut, nagusi den hurbilketari jarraiki. Lan honetan ez dut morfema hauen analisisirik egingo. Ariztimuño (2014) eta bertan jasotako aipamenak ikus daitezke morfema hauen azterbide historiko-koen berrikusketa baterako.

*naiatork* adizkiak, hain zuzen, forma alokutiboak dira, eta alokutiboen literaturan, nahikoa eztabaida handia ekarri du delako *-i* morfema bikiak —5. atalean ikusiko ditugu honi buruzko xehetasunak—. Oregik aipatzen dituen beste adibideak, *gato(r)zkizu/gaiatorzuz* eztabadakoak dira, eta *naiatork* zein *gaiatorzuz* adizkietara begira ikus daitekeenez, ez da adizkiaren bigarren gunea *-i* morfemak oraingoan betetzen duena, bigarren guneko *-a* bokalaren ostekoa baino (eta erroaren ezkerretara). Hortaz, *-i* hori dirudiena baino lekuz aldakorragoa da morfologikoki, eta merezi luke deskribapen xehe bat, bederen.

Bestalde, *-(k)i* bikoitzak oso bakanak irudi lezaketen arren, analisiaren arabera, ezagun samarrak diren datuetan ere aurki daitezke. Adibidez, *ekarri dizut* formarako, goian eman dudan analisi bera ikus daiteke ondoren ere (11a); pluraleko *ekarri dizkizut* kideko forman, ohiko analisisia jaso dut (11b) an eta beste analisi ez horren ohikoa (11c)an.

- |         |               |            |                                      |
|---------|---------------|------------|--------------------------------------|
| (11) a. | Liburua       | ekarri     | d-i-zu-t                             |
|         | liburua.ABS   | ekarri.PRF | DM-(edun)-APL-2DAT-1sgERG            |
| b.      | Liburuak      | ekarri     | d-i-zki-zu-t                         |
|         | liburu.pl.ABS | ekarri.PRF | DM-APL-(edun)-pl.ABS-2DAT-1sgERG     |
| c.      | Liburuak      | ekarri     | d-i-z-ki-zu-t                        |
|         | liburu.pl.ABS | ekarri.PRF | DM-APL-(edun)-pl.ABS-APL-2DAT-1sgERG |

*-Zki-* pluralgilea forma soiltzat hartu izan da euskal gramatikan, eta horren araberrako analisisia da (11b). Baldin eta hau bada analisi zuzena, orduan, morfema aplikatiboa ez da ageri, printzipioz espero litekeen bezala, datibo komuntadura hizkiaren ondo-ondoan, ez bada pluralgilea bera baino lehenago eta adizkiaren bigarren gunean.

Alabaina, Hualdek (2003: 211) ikuspuntu historiko batetik iradoki duen bezala, delako pluralgilea ez da forma bakuna, bi morfema biltzen dituena baino: alde batetik, pluralgilea bera, *-z* pluralgilea eta beste aldetik *-(k)i* honenez gero ezaguna —ikus baita Lafon (1999 [1961]: 419-420)—. Nire ustez, hauxe bera da ikuspuntu sinkroniko batetik esan beharrekoa, puzzle morfologikoa ulertzeko bidean —ikus baita Rebuschi (1984: 618)—. Puzzle horretan, morfologikoki zorizkoak irudi lezaketen *-(k)i* bikoitzek erakusten dute erroaren ezkerretara ere badela aplikatibo bat, ondoko atalean ikusiko dugunez, bete-betean lotzen dena alokutiboetako *-i* morfemarekin.

## 5. Alokutiboetako *-i* aplikatiboa

Aditz laguntzaileen inguruko eztabaida orokorrak zeresana eman badu, ez da eztabaida txikiagoa izan alokutiboekin lotu izan dena. Alokutiboen literaturan, gainera, gaiak izen hori bera izan du, hots, aditz laguntzailearen edo erroaren txandakatzea (ikus Rebuschi 1984; Oihartzabal 1993; Alberdi 1995 aipamen nagusietarako). Izatez, bi ardatz nagusi bereizi izan dira: batetik,

*izan* / \**edun*, eta bestetik \**edun* / -*i* (12a), (12b) eta (13a), (13b) adibideetan, hurrenez hurren, ikus daitezkeenak.

- (12) a. Jon berandu etorri d-a  
           Jon.ABS berandu etorri.PFK DM-DM-(*izan*)  
 b. Jon berandu etorri d-u-k/n  
           Jon.ABS berandu etorri.PFK DM-edun-ALO.MAS/FEM
- (13) a. Liburua ekarri d-u-t  
           liburua.ABS ekarri.PFK TM-edun-1sgERG  
 b. Liburua ekarri d-i-a/na-t  
           liburua.ABS ekarri.PFK TM-APL-(*edun*)-ALO.MAS/FEM-1sgERG

*Etorri* aditz iragangaitzeko adibideak dira (12a) eta (12b), bata eztabadakoa eta bestea hika/hitanokoa eta alokutiboa. Eztabadako formak *izan* laguntzailea erakusten du, eta forma alokutiboak, itxura denez, \**edun*. Bestalde, *ekarri* aditz iragankorreko adibidean, \**edun* aditz laguntzailea jasotzen da eztabadako adizkian (13a), eta -*i*, berriz, bere kideko alokutiboan (13b). Forma alokutiboek (12b) eta (13b), mintzakideari dagozkion -*k/n* eta -*a/na* morfemak erakusten dituzte: -*k* eta -*a* hizkiak maskulinoari dagozkio, eta -*n* eta -*na* femeninoari.

Adibide hauetatik guztietatik, niri batez ere interesatzen zaidana *i*-duna da (13b), jakina, eta horri baino ez diot erreparatuko orain —alokutiboen analisi baterako, Torrego & Fernández (2013) edo Haddican (liburu hone-tan) lanetara jo dezake irakurleak—. (13b) adibidea, baina, anbigua da, ze-ren forma alokutibotzat har daitekeen arren, goian hartu dudana bezala, forma neutrotzat ere har daiteke, eta orduan bestelakoa da morfemen analisisa:

- (14) Liburua ekarri d-i-a/na-t  
           liburua.ABS ekarri.PFK TM-APL-(*edun*)-2FAM-1sgERG

(14)ko analisisian, -*a/na* morfemak ez dira alokutiboarenak, bigarren per-sona singularreko lagunarteko *hi* izenordainaren komunztadura hizkiak baino. Edonola ere, -*i* morfema ageri da bai batean (13b) bai bestean (14): lehenean, -*a/na* alokutiboaren ezkerretara, eta bigarrenean, -*a/na* datibo komunztadura hizkiaren ezkerretara. Alabaina, batean zein bestean, -*i* morfemari esker gaineratzen da egiturara gaineratu beharrekoa, batean helburua den datibo argu-mentu hutsa, eta bestean, helburu gisako mintzakidea. Mintzakide hori ez da argumentu bat, noski, eta inoiz datibo etiko batekin lotu izan da (Schuchardt 1893). Nolanahi ere den, ustez, argumentuak gaineratzeko estrategia bera da -*i* morfema horri esker daukaguna, eta hortaz, aplikatibo bat.<sup>13</sup>

<sup>13</sup> Beñat Oihartzabalek buruz buru adierazi didanez, aplikatibotzat ez hartzeko irizpide na-gusia horixe bera izan liteke, hots, ez duela inongo argumenturik gaineratzen, diskurtsoko min-

Bestalde, alokutiboen azterketan, aditz laguntzailearen txandakatzetik aparteko beste *-i* batez hitz egin izan da, ondoko adibide hauetan ikus daitekeenaz (eta ikus ezin daitekeenaz):

- |         |                      |  |
|---------|----------------------|--|
| (15) a. | Jon liburutegian     | z-i-a-go-k/n                             |
|         | Jon liburutegia.INES | DM-APL-DM-egon-ALO.MAS/FEM               |
|         | b. Jon-ek liburua    | z-a-karr-e-k/n                           |
|         | Jon-ERG liburua.ABS  | DM-(APL)-DM-ekarri-ep-ALO.MAS/FEM-(3ERG) |

Lehen adibideak, erroaren ezkerretara, adizkiaren bigarren gunean erakusten du *-i* morfema. Bigarren gune horretan sendo agertzen da morfema hau forma alokutiboetan. Ostean, (15b) adibidean, *-i* morfema ikusi ezin daitekeen arren, *d-* > *z-* aldaketak iradokitzen du ezkutuan bada ere, egon dagoela, Rebuschik (1984: 620-23) beste batzuen artean defendatu duen bezala. Eta berriro ere, erro aurreko *-i* hori ez da bigarren gune horretan bakarrik azaltzen eta lekuz alda daitekeela dirudi. Gogoratu, bestela, goian aipatu ditugun Oregiren *natorkik/naiatork* forma alokutiboak, eta kideko *natxi-ok/n* > *na-txe-go-k/n* > *na-ia-go-k/n* (vs. *niagok/n*) (Patxi Goenaga, buruz buru).<sup>14</sup>

Alokutiboetako *-i* hori ere aplikatiboa dela aldarrikatzeak azal lezake beharbada, nola gaineratzen den mintzakidea forma alokutibo batzuetan, behintzat. Hori, bistan denez, ez da alderdi txiki bat baino alokutiboen mekanismo xotil eta sofistikatuan.

## 6. Ondorioak

Lan honetan erakutsi dudanez, *-(k)i*, morfema aplikatibo bat da eta *-(k)i* morfemadun egiturak egitura aplikatiboak. Ez dira bete-betean, jakina, bantu hizkuntzetakoak bezalakoak, baina, diferentziak diferentzia, estrategia bat bera antzematen da tipologikoki askotarikoak diren hizkuntzetan. Argumentuak gaineratzeko estrategia unibertsal horren parte bat da *-(k)i* morfema. Hipotesi honek ondorio desiragarri bat du, gainera: euskararen aditz laguntzaile sistema ia azkengabea zeharo murrizten du. Bestalde, agerraldi morfologi-koetara begira, behintzat, *-(k)i* bikoizturik agertzen da batzuetan eta lekuz

---

tzakidea baino. Dena dela, Schuchardten intuizioa zuzena balitz eta, ñabardurak ñabardura, datibo etikoekiko lotura balute alokutiboek, orduan ez litzateke hain hipotesi burugabea *-i* hau ere aplikatibo bat dela pentsatzea: datibo etikoen literaturan, aplikatiboa dagoela proposatu izan da, eta datibo etikoak ere ez dira argumentuak. Litekeena da askotariko aplikatiboak egotea euskaraz —ikus Fernández & Ortiz de Urbina (2010) eta Oihartzabal (2007)—, eta intuitiboki, bederen, zenbat eta aplikatibo hori gorago egon, hainbat eta lausoagoa izatea datiboaren argumentutasuna.

<sup>14</sup> Rebuschiren (1984: 621) kontra, zeinak *-i* morfema hori aditz erroan tartekaturik dagoela dioen *nag-i-ok* > *natxiok* (vs. *niagok/n*).

aldaturik besteetan. Ez du horrek, printzipioz, ondorio sintaktikorik, eta bi-koizketa morfologiko hutsa dirudi, baina aplikatiboaren kokalekua zein den jakiteko bidea ematen digu. Azkenik, badirudi ohikoak diren egitura aplikatiboez gain, badela alokutiboarekin ere lotu daitekeen beste morfema aplikatibo bat, azal lezakeena beharbada nola gaineratzen den mintzakidea egiturara, inflexioan ere eraginez.

## Aipamenak

- Alberdi, Xabier. 1995. «The development of the Basque System of terms of address and the allocutive conjugation». In J.I.Hualde, J.A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 275-295.
- Albizu, Pablo. 1998. «Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology.» In M. Uribe-Etxebarria & A. Mendikoetxea (arg.), *Theoretical Issues on the Morphology-Syntax Interface*. ASJUren Gehigarriak XL. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU. 1-33.
- Ariztimuño, Borja. 2014. «Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar.» In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *3rd Conférence of the Luis Michelena Chair - Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra - III Congreso de la Cátedra Luis Michelena* («Koldo Mitxelena» Katedraren Argitalpenak, 5). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua. 41-60.
- Baker, Mark. 1988. *Incorporation: A theory of grammatical function changing*. Chicago: University of Chicago Press.
- Bonaparte, Louis Lucien. 1869. *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara*. Londres: Strangeways and Walden.[Berrargitaraturik. 1992. *Opera Omnia Vasconice*. Bilbo: Euskaltzaindia]
- Dryer, Matthew S. «Indirect objects in Kinyarwanda revisited.» In David M. Perlmutter (arg.), *Studies in Relational Grammar* 1. Chicago: The University of Chicago Press. 129-140.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- Etxepare, Ricardo. 2003. «Valency and argument structure in the Basque Verb.» In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin / New York: Mouton de Gruyter. 363-425.
- Etxepare, Ricardo & Beñat Oihartzabal. 2009. «Bi datibo egitura ifar-ekialdeko hizkeretan». *Lapurdum* XIII. 145-158.
- Euskaltzaindia. 1987b. *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernández, Beatriz. 2012. «-(K)i eta -ra». *ASJU* 46-2. Bilbo: UPV/EHU. 257-270.
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2010. *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Gómez, Ricardo & Koldo Sainz. 1995. «On the origin of the finite forms of the Basque verb». In Jose Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 235-274.

- Gómez, Ricardo. 2006. «Aditz bakarraren teoria XIX. mendeko euskal gramatikagintzan». *ASJU* 40, 1-2. 377-408. [Interneten ere eskuragarri: In Pello Salaburu, Patxi Goenaga & Ibon Sarasola (arg.), *Sareko euskal gramatika*. <http://www.ehu.es/seg/morf/5/15/1/0>].
- Haddican, Bill. (liburu honetan). «Vocative agreement.» In Beatriz Fernández & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José Ignacio. 2003. «Verbs. Finite forms.» In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter. 205-246.
- Lafon, René. 1944. *Le système du verbe basque au XVII<sup>e</sup> siècle*, Bordele. [Birrarg. 1980. Donostia: Elkar.]
- Lafon, René. 1961. «Sur les forms verbales basques qui contiennent un indice datif.» *BSL* 56-1, 139-162. [Berrarg. 1999. In Jean Haritschelhar & Piarres Xarriton (arg.), *Vasconiana. IKER* 11. Bilbo: Euskaltzaindia, 411-430.]
- Lakarra, Joseba A. 2008. «Aitzineuskararen gramatikanantz (malkar eta osinetan zehar)». In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez*. Bilbo: UPV/EHU. 451-490.
- McFadden, Thomas. 2007. «Auxiliary selection». *Language and Linguistics Compass*. vol 1, 6, 571-769.
- Mounole, Céline. (liburu honetan). «Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupersonalen diakroniaz». In Beatriz Fernández & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU.
- Oihartzabal, Beñat. 1993. «Verb agreement with non Arguments: On allocutive agreement». In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Syntax*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 89-114.
- Oihartzabal, Beñat. 2007. *Basque Ditransitives*, eskuizkribua, IKER, CNRS.
- Oregi, Josu 1973. «Euskal aditzaz zenbait gogoeta.» *Fontes Linguae Vasconum*. 17. 265-283.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 1998. «On the syntactic nature of the me-lui and the Person-Case Constraint.» *ASJU* XXXII-2. 415-433.
- Pylkkänen, Lisa. 2003 / 2008. *Introducing arguments*. Cambridge (Mass.): The MIT Press.
- Rebuschi, Georgés. 1984. *Structure de l'énoncé en basque*. Paris: SELAF.
- Rezac, Milan. 2006. *Basque morphosyntax*. eskuizkribua, University of Nantes/CNRS.
- Rezac, Milan. 2008. «The syntax of eccentric agreement: the Person Case Constraint and Absolute Displacement.» *NLLT* 26. 61-106.
- Rezac, Milan. 2009. «Person restrictions in Basque intransitives.» *Lapurdum* XIII. 305-322.
- Sarasola, Ibon. c. 1988. «La estructura del verbo.» Unibertsitateko Irakasle Titularra izateko egitasmoa. Universitat de Barcelona.
- Schuchardt, Hugo. 1893. «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco.» *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 28, 2-3. 217-337.
- Torrego, Esther & Beatriz Fernández. 2013. *Allocutivity/addressee agreement: The view from Basque*. eskuizkribua. IKERBASQUE & UPV/EHU.

- Trask, Robert L. 1981. «Basque Verbal Morphology». In *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak. Iker 1*. Bilbao: Euskaltzaindia. 285-304.
- Trask, Robert. L. 1995. «On the history of the non-finite forms in Basque». In J.I. Hualde, J.A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 207-234.
- Trask, Robert L. 1997. *The history of Basque*. London: Routledge.